

MUk 350 euskal gazte bilduko ditu Estatuan ekintzailletza sustatzeko 'Team Academy' finlandiar metodologia lehenengoz erabiliko den gertaeran

2008/12/12

Donostia, 2008ko abenduaren 12a. Mondragon Unibertsitateak, gaur egunean zehar, 500 euskal gazte inguru bilduko ditu (bai batxilergoko bai unibertsitateko ikasleak) Donostian gauzatuko den gertaera handian. Horren helburua gazteen artean ekintzailletza bultzatzea da eta beren proiektuak abiaraziz beren etorkizuna landu dezaketela erakustea. *'Ametsen ekaitza'* da ekimen handi horri emandako izena. Bertan, jarrera proaktibo jakin batzuk sustatuz gero proiektu bat errealitate bihurtzea eta nork bere enpresa sortzea posible dela erakusten saiatuko dira gazteenei.

Horretarako, Gazte Enpresa-Caja Laboral-en laguntza izan du eta berrikuntzako eta ekintzailletzako gaietan nazioarteko aditurik onenen lankidetzan, 'Team Academy'-rena. Jyväskylä-ko Zientzia Aplikatuko Unibertsitateko ekintzailletzako unitate berezia da 'Team Academy', metodologia jakin batzuen bidezko ekintzailletzan espezializatua, hala nola, talde-lanean eta egitearen bidezko ikaskuntzan. Gertaera, 'Team Academy'-ren metodologia ezaguna erabiliz Espainian egiten den ezaugarri horietako lehenengoa, gaur egunean zehar gauzatuko da Donostiako Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroan, 09:00ak eta 19:00ak bitartean. Gertaera horrek Finlandian arrakasta handiak lortu ditu eta aurtengoa dagoeneko zortzigarren edizioa izango da.

Jardunaldi barruan 'talk show' izenekoak izango dira. Horietan, Kukuxumuxuko eta Loreak Mendiaren zuzendariak beren enpresa-ametsa nola aurrera atera zuten eta amets egiten zuten enpresaren proiektuari nola forma eman zioten azalduko diete 350 ikasleri. Horren ostean, talde-lanak egingo dituzte, eta talde bakoitzak taldean lan egin behar du helburu komun bat lortzeko. Renaulten Word Series taldeak ere parte hartuko du jardunaldian, eta bertaraturikoei goi-lehiaketen munduan taldean nola lan egiten den azalduko diete.

Arratsaldean, berriz, tailerrak egingo dira, hainbat alor hartuko dituztenak, esaterako, artea, berrikuntza, enpresa eta unibertsitatea. Tailerrak sektore horietako profesional entzutetsuek zuzenduta egongo dira, eta horiek beren lan-esparruko ekintzailletzari eta beren enpresa-proiektua martxan jartzeko eginiko ahaleginari buruzko giltzak eskainiko dizkiete ikasleei. Tailer horietaz arduratuko diren adituak honako hauek izango dira: Perna Goñi, artearen alorrean; Ikearen ordezkaria, berrikuntzaren alorrean; Tavi Vicuña, Interneten enpresak sortzearen inguruko tailerrean; eta azkenik, Gaze enpresa, unibertsitateko ekintzailletzaren inguruko tailerra zuzenduko duena.

Ekitea posible da

Ekiteko pasioa eta ilusioa piztea, nork bere bizitzan jarrera aktiboa eta sortzailea hartzea eta ekintzailletzako proiektuen bitartez nork bere etorkizuna lantzea posible dela pentsaraztea dira jardunaldi horren azpian dauden ideietariko batzuk. Helburua gazteen artean espiritu ekintzailea sustatzea da, ekintzaile gehiago sortzeko, eta hortaz, enpresa gehiago, gure herrian lanpostuak eta aberastasuna sortuko dutenak. Ekimenak 'eginez ikastearen' kontzeptuaren garrantzia irakatsiko die ikasleei, beren jarrera proaktiboa sustatuko duten erremintak emango dizkie eta laneko taldeek ikaskuntzan eta lan-esparruan duten egitekoari buruzko giltzak emango dizkie. Hori guztia xede bakar batez: gazteei bakoitzak bere etorkizuna lantzen duela ulertaraztea.

Horretarako, Finlandiako 'Team Academy'-ren metodologietan oinarrituriko talde-lanen eta talde-ekintzailletzaren inguruko esperientziak eskainiko ditu 'Ametsen ekaitza'-k, eta 'Team Academy'-k



garaturiko hainbat ekimenei buruzko informazioa. Hitzordu hori oso aukera ona da ohiko irakaskuntzarekin arazoak dituzten ikasleentzat, 'eginez ikasi' metodoarekin aukera aparta izango baitute.

Gertaera hori egitearen inguruko jatorrizko ideia Aivomyrsky-n, Finlandian, sortu zen. Han urtero antzeko gertaera bat antolatzen da, eta dagoeneko zortzigarren edizioa bete du. Mondragon Unibertsitateak lortu nahi duen helburu bera du: gazteak ekintzailetzaren inguruan biltzea, ekintzaileen bizipenak eta iritziak entzun ditzaten eta beren etorkizuna sortu dezaketela jakin dezaten.

'Team Academy'

Jyväskylä Zientzia Aplikatuen Unibertsitateko ekintzailetzako unitate berezia da Finlandiako 'Team Academy'. Johannes Partanenen-ek sortu zuen 1993an. 'Team Academy' taldeko ekintzailetzari bideraturik dago eta horren bitartez enpresa-mundurako beharrezko gaitasunak lantzen ditu, bereziki ekintzailetzarekin zerikusia duten gaietan. Taldeko ikaskuntza eta eginez ikastea dira metodo nagusiak.

Irakurketaren eta coachingaren bitartez lorturiko ezagutza teorikoan oinarritzen dute ikasleek beren jarduna. Ohiko ikaskuntza erabat aldatzen du pedagogia horrek.

'Team Academy' metodologia hainbat egoera eta testuingurutan aplikatu da. 'Team Academy'-k jarrera ekintzailea sustatzen du Finlandiako hainbat hezkuntza mailetan: hasi haurtzaindegitik eta unibertsitateeraino. Haren metodoak era guztietako erakundeetan erabili dira: ETE-etan, finlandiar multinazionalen, elkarteetan eta erakundeetan.

Team Academyren metodologia eta ideologia Europako hainbat herrialdeetara hedatu da, besteak beste, Erresuma Batura, Frantziara, Holandara, Alemaniara, Esloveniara eta abarretara. Euskadin metodologia hori 'Team Academy Euskadi'-k, Labein-Tecnaliak eta Mondragon Unibertsitateak erabiltzen dute.

www.mondragon.edu